AGUAS DEL AÑARBE – ANARBEKO URAK, SA-REN HONDAKIN-UREN KALITATEA KONTROLATZEN DUEN LABORATEGIRAKO TOXIKOTASUN-ANALIZATZAILEA HORNITU, INSTALATU, MARTXAN JARRI ETA MANTENTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Kontratuaren xedea.

Agiri honen xedea da, Hondakin-Uren Kalitatea Kontrolatzen duen laborategirako toxikotasun-analizatzaile bat erosteko baldintza teknikoak zehaztea, hala nola haren instalazioa, martxan jartzea eta mantentzea, laborategiaren gaitasun analitikoa handitzeko helburuarekin.

2. Eskakizun teknikoak.

Ekipoari esker hondakin-uren laginen toxikotasuna analiza daiteke, bai etxeetako laginak bai industrietakoak, UNE-EN ISO 11348-3 arauaren arabera eta, behar denean, kolorea zuzentzeko gaitasunarekin. EC50 zehaztuko da, gutxienez, %0,5 -%35 tartean.

2.1. Irizpide instrumentalak.

Erosiko den ekipoak gutxienez ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- 12 mm-ko diametroa duten, gutxienez, 30 hodi 15± 0,5°C-ra girotzeko gaitasuna.
- Irakurketa-kubeta 15± 0,5°C-ra termostatizatua.
- Emaitzak kanpoko ordenagailu batera esportatzeko aukera (.csv edo Excel formatuan).
- Erreaktibo osagarria leuntzeko putzua, 15± 0,5°C-ra termostatizatua.
- UNE UNE-EN ISO 11348-3 arauaren arabera entseguak egiteko aurreprogramatutako lan-metodoak, toxikotasun maila ezberdinetara optimizatuak.

3. Instalazioa, abian jartzea eta prestakuntza

3.1. Instalazioa.

Ekipoaren instalazioa esleipendunaren kontura izango da eta ez du inolaz ere gastu gehigarririk eragingo. Ekipoak modu zuzenean funtzionatzeko behar duenera egokituko dira laborategiko zerbitzuak (korrontearen hargunea, sare informatikora konexioa, behar balu, etab.).

3.2. Abian jartzea.

Martxan jartzeak jasoko du, UNE-EN ISO 11348-3 arauaren arabera etxeetako eta industrietako hondakin-uren toxikotasuna zehazteko metodo analitiko baten garapena eta dokumentazioa, behar balitz, kolore zuzenketarekin.

Martxan jartzeko erabiliko diren material suntsikorrak esleipendunaren kontura izango dira.

3.3. Prestakuntza.

Enpresa esleipendunaren langile kualifikatuak emango du prestakuntza, erabiltzaileak ekipoa zuzen erabiliko duela bermatzeko.

Prestakuntza hiru fasetan egingo da:

- Oinarrizko prestakuntza, egun bat iraungo du eta ekipoaren instalazioarekin batera egingo da.
- Prestakuntza aurreratua, zehaztear dagoen epea igaro ondoren, metodo analitikoak optimizatzera eta baldintza teknikoak betetzen direla egiaztatzera bideratuak. Egun bateko iraupena izango du.

Laguntza teknikorako zerbitzua jasoko du, zeinak gutxienez ekipoaren berme-epea iraungo duena eta entsegu-metodoak ezartzearekin eta egiaztatzearekin dauden arazoak konpontzeko bideratua.

4. Jasotze probak.

Ekipoa instalatu ondoren, ondorengo analisiak egingo dira ekipoaren funtzionamendu egokia egiaztatzeko.

Proba horiek egiteko erreaktiboak eta material suntsikorrak esleipendunak ordainduko ditu.

4.1. Zehaztasun analitikoa (3,5 diklorofenola).

25 mg/l-ko 10 lagin analizatuko dira (3,5 diklorofenol), 13,60-ko EC50 batekin.

Laginen emaitzak 10,7 – 18,7 tartean egongo dira.

4.2. Doitasun-kontrola.

Toxikotasun baxua, ertaina eta altua duten hondakin-uren lagin errealak analizatuko dira, hiru aldiz.

Kasu guztietan, emaitzen bariazio-koefizientea %15etik behera egongo da.

5. Mantentzea.

Mantentzea esleipendun gertatu den enpresako zerbitzu teknikoak egin beharko du. Mantentze-zerbitzuak bilduko ditu, gutxienez, ondorengo puntuak:

- Urtean mantentze prebentiborako bisita bat gutxienez
- Bisita bakoitzean egingo diren lanen xehetasuna
- Euskarri telefonikoa intzidentzietarako
- Matxuren konponketa (barnean daude: teknikarien desplazamendua, lan-orduak eta ordeztutako piezak)
- Matxura-abisu baten aurrean erantzun-denborari buruzko informazioa
- Softwarea azken bertsiora eguneratu

Intzidentzia edo matxura jakinarazten denetik, gehienez, 48 ordura emango da laguntza teknikoa, piezak eta aplikazioen euskarriak barne.

Mantentze-zerbitzua hiru (3) urtez emango da, ekipoa instalatzen denetik zenbatzen hasita. Lehen mantentze-bisita sartuta dago ekipoaren bermean.

Mantentze-bisitak egiten direnean, ekipoaren firmware eta softwarearen azken bertsioak instalatuko dira. Ekipoaren instalazioa esleipendunaren kontura izango da eta ez du inolaz ere gastu gehigarririk eragingo.

6. Bermea

Berme-epea urte batekoa izango da, ekipoa jasotzen denetik. Bermean sartuta egongo dira: konponketa egiteko behar diren desplazamenduak, piezak, laneskua eta suntsikorrak, eta fabrikatzaileak gomendatzen duen urteko prebentziozko mantentzearen lehen bisita.

Mantentze-bisita egiten denean, ekipoaren firmware eta softwarearen azken bertsioak instalatuko dira. Ekipoaren instalazioa esleipendunaren kontura izango da eta ez du inolaz ere gastu gehigarririk eragingo.

Berme-epean zehar ekipoak akatsak edo kalteak dituela ikusiko balitz, AUSAk eska diezaioke enpresariari akatsdun ondasunak aldatzea edo horiek konpontzea.

Donostian, 2024ko martxoaren 4an

_____

Aitor Isusi Aburto
Jefe de Área de Control de Calidad